



Josune Irabien Marigorta Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko Zuzendariari bitartekaritza eskaera

2012 urtean euskarazko komunikabideak sustatzeko, laguntzeko eta finantzatzeko adostasun handiko elkarlan akordioa izenpetu zuten Aiaraldea Komunikabideak eta eskualdeko 9 udalek (Laudio, Amurrio, Urduña, Orozko, Aiara, Okondo, Artziniega, Arrankudiaga-Zollo eta Arakaldok).

Elkarlan bide horren emaitza izan da urte hauetan guztietan euskara biziberritzeko lanabes estrategikoa den komunikabidea asko eta ondo errotu dela eskualdean, hizkuntzaren biziberritzerako makulu ezinbestekoa bihurtuz milaka eta milaka herritarrentzat.

Adostasun politiko handiz izenpetu eta 12 urteotan sendotu den elkarlan-hitzarmena Amurrioko Udalak aldebakarrez bertan behera uztea eta komunikabideari ematen zion dirulaguntza etetea erabaki zuen 2024 urte hasieran.

Aiaraldea Komunikabidearen sustatzaile eta jabe den gizarte ekimeneko irabazi asmorik gabeko Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak apirilean izan zuen erabaki honen berri. Denbora tarte honetan Udalarari gaia lantzeko bilera eskaerak etengabeak izan dira, erabakiaren zergaitien berri lehen eskutik izan, eta egoera bideratzeko adostasunak bilatzeko.

Mahai baten bueltan gatazka konpontzeko eskaera indartzeko -eta biltzeko ukoaren aurrean-, ekainean Aiaraldea Komunikabideak atxikimendu dinamika bat abiatu zuen Amurrioren, zeinaren bidez 1700 norbanakok eta entitateek eskatu zioten Udalarari gatazka konpontzeko bi aldeen arteko bilera ahalbidetzea eta eskualdeko euskarazko komunikabide bakarrarentzako dirulaguntza ahal bait arinen berrezartzea.

Ekainaren 21ean Amurrioko Juan de Urrutia plazan egindako agerraldi herritar jendetsuan irailaren 21era arteko epea luzatu zitzaion Udalarari gatazka konpontzeko urratsak emateko.

Tarte hori igarota, Amurrioko Udalak berriz ere uko egin dio Aiaraldea Komunikabidearekin biltzeari.

Gatazka konpontzeko bitartekaritzaren beharra

Hala Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak nola Amurrioko Udalak euskararen biziberritzea dute helburu partekatu bezala. Hizkuntzaren normalizazioan aurrera urratsak eman ahal izateko ezinbestekoa da tokiko instituzioen eta herritarren ehun sozialaren arteko lankidetzak. Azken hamarkadak horren lekuko garbia izan dira. Aiaraldea Kooperatiba Elkartearen argi dugu gatazka hau ez dela ona inorentzat, baina batez ere ez da ona euskararentzat eta bere biziberritze prozesuarentzat.

Bi erakunderen arteko lankidetzaren berreskuratzeko ezintasunaren aurrean, **gatazka konpontzeko bitartekaritza prozesu bat bideratzea eskatzen diogu Josune Irabien Marigorta Euskara Sustatzeko Zuzendariari.**

Irabien andreak Jaurlaritzan betetzen duen funtzioen artean kokatzen da euskarazko hedabideak indartzeko eta sustatzeko ekimenak bultzatzea. Horretaz gainera, bitartekaritza lanak egiteko pertsona egokia dela uste du Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak; Amurrioko errealitatea ezin hobe ezagutzen duelako (9 urtez bertako alkatea izan denez gero) eta Aiaraldea Komunikabidearekiko elkarlan aldiaren berri lehen eskutik izan duelako urte hauetan guztietan.

Bi aldeak entzun, eta mahaiaren bueltan adostasunak bilatzen laguntzeko pertsona egokia da Irabien andrea, horregatik eskara zintzo hau luzatzen dio Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak, gatazka konpontzeko bere ezagutza eta laguntza eskaini ditzan.

Bitartekaritza prozesu honen bidez, euskararen mesederako izango den akordioa lortzeko berriz ere eskua luzatzea erabaki du Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak.

Bitartekaritza prozesuaren epemuga: urriak 31

Gatazka are eta gehiago ez larriagotzeko asmoz, eta Aiaraldea Komunikabideak egun bizi duen finantzaketa defizitari lehen bait lehen aurre egiteko asmoz, bitartekaritza prozesua urriaren 31ra artekoa izatea aurreikusi dugu, borondatea izanez gero, epe hori nahikoa delakoan bi aldeontzako akordio egoki bat erdiesteko.

Hauek horrela, Josune Irabien Marigorta Euskara Zuzendariari gatazka honen konponbidean bitartekari izateko eskaera luzatzen diogu, betetzen duen karguarekiko arduratik, gonbidapena gogo onez hartuko duenaren esperantzarekin.

Aiaraldean, 2024ko irailaren 24



Izenpetua:

Gartzen Garaio Atxurra

Aiaraldea Kooperatiba Elkarteko idazkaria